

Turismo gidarientzako dekalogoia

Donostia
San Sebastián

Donostian turismo arduratsu eta jasangarriaren aldeko apustua egiten dugu, eta sektoreko profesionala zaren aldetik, **zugana jotzen dugu laguntza eske**, bisitarien eta herritarren esperientzien kalitateari eusteko. Guztiontzako Donostia jasangarriago eta atseginoago baten alde.

Nahitaez bete beharrekoak:

1



Gida turistikoaren edota laguntzailearen **'Erantzukizunpeko adierazpena'** online izapidetzea, araudia betetzen dela adierazteko.

2



Talde bakoitzeko gehieneko pertsona-kopurua:
25 pertsona + gida.
Bisita gidatuen ordutegia:
8:00-23:00.

3



Kalean **zarata gehiegi egon ez** dadin, beharrezkoa da banakako audio sistemak erabiltzea. Udal ordenantza bidez debekaturik dago megafonoak, mikrofonoak, etab. erabiltzea.



sanebastianturismoa.eus

Gomendioak:

4



Bide publikoaren okupazioa.

Saihestu igarobideak, bidegorriak, espaloi oso estuak, ostalaritzako edota saltokietako sarrerak, etab. Aprobetxatu parkeak, etorbideak eta horretarako egokiak diren lekuak, espazioak, etab.

5



Udan eta puntako orduetan saihestu gainezka dauden kaleak eta eremuak.

Jende asko pilatzen den uneetan, bisita alternatiboak egitea gomendatzen da, hiriaren gaineko ikustaldi panoramikoak eginez pilaketa txikiagoko lekuetatik: parkeetatik, behatokitatik...

6



Tokiko erakargarritasuna.

Helmuga turistikoaren ondarea eta kultura azpimarratzea; hiria, Gipuzkoa eta Euskal Herria. Herrialdeko historia eta kultura ondo ezagutzea.

7



Ekonomia Zirkularra.

Merkataritza txikian kontsumoa sustatzea, tokiko negozio ezberdin eta paregabeen garapena bultzatzea. Kontsumo arduratsu eta jasangarria sustatzea.

8



Presarik gabe. Bisitatzen gaitzuteni astia ematea beste leku batzuk euren kasa esploratu ditzaten, hala nola museoak eta turismo zerbitzuak.

9



Tokiko gastronomia jator eta kalitatezkoaren alde egiten duten sukaldaritza-establezimenduak bisitatzea. Pintxo Institutuari eta DSS Turismoari atxikitako establezimenduak benetako eta tokiko zerbitzu onaren adibide ederrak dira.

10



Hizkuntzak. Gidariak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak jakitea gomendatzen da: euskara eta gaztelania, gutxienez.

11



Jasangarria eta arduratsua.

Bisitatzen gaitzuteni gogorarazi hiria eta hiriko ondarea zaindu eta ingurumena errespetatu behar dutela (hondakinak birziklatu, garraio publikoan ibili, tokiko merkataritzan erosi, tokiko produktuak kontsumitu, etab.).

Informazio gehiago:

Tel.: +34 943 48 11 66

sansebanturismoa@donostia.eus